




ARNEGI

# Hegantza



Distantzia <b>17,37 km</b>	Desnibela <b>910 m</b>	Iraupena <b>7h00</b>	Tipologia <b>Itzulia</b>	Zedarriak <b>PLR seinaleak (horiak)</b>
-------------------------------	---------------------------	-------------------------	-----------------------------	--

Ibilaldia Arnegiko pilota plaza eta elizako aparkalekutik abiatzen da.

GPS datuak: UTM : 639766 - 4774280 Lat/Long : 43.10838/-1.28223

Arnegiko herritik abiatzen den ibilbide hau artaldean transhumantziaren isla da, ibarretako etxaldeetatik bortura igotzen baita Ibarrolako bordak ikusi ondoan, Hegantzako lepoaren inguruko etxola eta alhapide ederrak ikusi daitezke.

## 1. ZATIA > Ibarreko oihan mistoa

UTM : 639766 - 4774280. Pilota plazari bizkarra emanez, joan eskuinera, herriaren sartzera buruz. Biribilgunean, joan zuzen D933 errepidearen bazterretik, Donibane Garazirantz. Clementenia hotelaren heinean, eskuinera doan errepide ttipia hartu. Oihan misto batean 900 m ibili ondoan, lehen bihurgunean errepidea utzi, eta ezkerreko bidea hartu etxe baten bazterretik. Xeila ireki eta hetsi ondoan, bidea pentzeen erditik iragaten da, eta borda eta beste xeila baten ondotik, oihana heldzen da. Borda hondatu baten heinean, joan ezkerre. Telekomunikazio zutabe baten ondotik, baserri batera iritsi.

## 2. ZATIA > Pagolako erreka gainean


UTM : 641075 - 4775417. Errepidean, joan eskuinera. Errepidea berehala utzi, laborantzako eraikin baten heinean ezkerreko bidea hartzeko. Eraikina pasatu eta 40 m ibili ondoan, bide hau utzi eta hartu ezkerreko bidexka. Landaredi joriagatik bidexka gaizki ikusten da; hesi baten bazterretik doa eta Pagolako erreka ibarra ikusmenean du. Bidexka hori bide zabalago batera iristen delarik, joan ezkerre, eta gero, metro batzuk urrunago, bidebanatzean, joan eskuinera. 20 m geroago, egon ezkerrean, iratzeen arteko bidexkan. Eskuinean hormatxo batek bazterkatzen duen bidexkak errepide batekin bat egiten du pixka bat gorago.

## 3. ZATIA > Erdiko eremua

UTM : 641485 - 4774906. Errepidean, joan ezkerre. Gero, 200 m urrunago, joan eskuinera. Errepidea baserri baten heinean bukatzen da, eta orduan bide bilakatzen da. Bide horretan 2,8 km ibili. Ibarrolako borden heinean, xeila bat pasatu eta hetsi, eta eskuinetik segitu. Beste borda baten ondotik, bidebanatze batean, pago eder bat dagoen lekuan, zuzen jarraitu. Uraska bat eta eskuinaldean iturri bat pasatu eta 80 m geroago, bidea utzi eta eskuineko bidexka hartu.

## 4. ZATIA > Bazkalekuak

UTM : 641554 - 4772309. Bidexka Beillurtiko erreka gainetik pasatzen da, mendi mazelan. Xaltroko etxolaren heinean, pixkanaka, pasabide arrokatsu hertsia batera iristen da. Leku arrokatsu horren ondotik, lehen etxola batera iristen da. Hortik bide bat hasten da. Bide hori hartu, Hegantzako lepora iristeko. Lepoan, joan ezkerre, eta gero eskuinera, Arnegirantz jaisten den errepidean. Luzaideko herrira eta gibelean Mendimotxa eta Adartzako gailurretara dagoen ikuspegi ederraz gozatu. 1,2 km ibili ondoan, errepidetik atera, eta joan eskuinera, zuzenean gailur borobildu baterantz jaisten den bidexka batetik.



## 5. ZATIA > Ikuspegia Luzaidera

UTM : 639727 - 4770700. Jaitsi gailur borobildu horretatik, bide batera iritsi arte. Bidetik joan, ezkerretik, eta 300 m ibili. Bidebanatzean, hartu eskuinera, eta jaitsi zuzen beste gailur borobildu batean dagoen bide belartsu batetik. Pentze baten parean, bidea eskuinera itzuli eta oihanean sartzen da. Pixka bat beheago, gaztainondoan azpian, joan eskuinera, hesi baten parean. 200 m urrunago, zuzen jarraitu, hesi baten bazterretik. Pentze bat zeharkatu, xeilak ireki eta hetsiz. Bigarren xeilaren ondotik, jaisten den eskuineko bidea hartu. Lehenik erreka batera iristen da, eta gero errepide batera.

## 6. ZATIA > Arnegiko herrira itzultzea

UTM : 639694 - 4771713. Errepide horretan, joan eskuinera. 400 m ibili ondoan, joan eskuinera, beste errepide batetik. 1,1 km ibili ondoan, ezkerreko bidea hartu. Uraska zahar baten heinean, jaisten segitu. 500 m urrunago, errepide batera iritsi. Errepidean, joan ezkerre, Arnegiko herrira itzultzeko.



## INTERESGUNEAK

### ❖ Ibarrolako bordak

Borda soil batzuk baino askoz gehiago dira. Mendiaren erdialdeko borda horiek oso baliosak ziren, batez ere transhumantzia garaian. Artaldeak bertan bizi ziren, udaberriari eta udazkenean. Barnean, belarra biltzeko solairu bat dute. Kanpoan, arbelezko teilatua dute. UTM : 642141 - 4773348

### ❖ Xaltroko etxolako iturriak eta zohikaztegiak

Pasabide arrokatsu hertsia baino lehentxeago, Beillurtiko erreka ur-jauzia ikusi daiteke, iturri ttipien erdian. Hezegune horietan, zohikaztegiak daude. Ingurune horietako zohikatz-goroldioen (sphagnum) artean, landare haragijale (pinguicula) batzuek errekaen bazterreko lurak estaltzen dituzte. UTM : 641196 - 4771210

### ❖ Beillurtiko etxolak

Artzainaren bizilekua da etxola. Kabalen bazkalekuen ibilbideari lotuta dago. Gaur egun, ibilbideak oraino baliatuak dira artaldeak belarra jateko. Aldiz, etxolaren erabilera aldatu da denborarekin; baina etxola batzuetan artzainek gasna fabrikatzen segitzen dute. UTM : 641114 - 4771011

### ❖ Hegantzako lepoa

Hemen, lepo honen bi aldeetan, Pirinioetako pasabidearen bilaera ikusi daiteke. Izan ere, Jondoni Jakue bidearen bi ibilbide iragaten dira. Lehana lepotik oso hurbil dago, eta erromatarren garaitik baliatzen den antzinako ibilbidea da. Bigarrena, mendebaldean, Arnegiko Errobiren bazterrean, ibilbide modernoa da eta Luzaideko herrira zeharkatzen du. UTM : 640713 - 4770905

### ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

D933ko errepide bazterrean zati bat. Erne egon biribilguneetik Clementenia hotelera  
UTM : 639860 - 4774419

### EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Abiapuntuan: komunak, ura, ostatua eta jatetxea  
UTM : 639766 - 4774280

# Ibilbideen erabilbidea

## ZAILTASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

**Oso erraza:** 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

**Erraza:** 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

**Ertaina:** 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltariarentzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

**Zaila:** 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolariarentzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

## MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

**Oso erraza:** bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

**Erraza:** gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

**Ertaina:** bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

**Zaila:** bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

## DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzieren gehiketa da.

## IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da. Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

## PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: [www.ffrandonnee.fr](http://www.ffrandonnee.fr))

## GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentziazko formatua: WGS 84 - UTM 30T

# Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

## Abiatu aitzin, presta zaitetz

- Ez zaitzezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitzezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emazioz (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitetzke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitzezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitetz, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitetz garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

## Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaletika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

## Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitetz emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitzezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitetz eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

## Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

## ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:  
08 99 71 02 64 edo 32 50  
edo [www.meteofrance.fr](http://www.meteofrance.fr)

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



## ZURE IRITZIA GURE BIDEXKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeko aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: [sentinelles.sportdenature.gouv.fr](mailto:sentinelles.sportdenature.gouv.fr)

## HELBIDE BALIAGARRIAK

### Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:

Turismoko Harrera bulegoak  
- BAIGORRI  
Herriko Etxeko plaza  
+33(0)5 59 37 47 28

- DONAPALEU  
Charles de Gaulle plaza  
+33(0)5 59 65 71 78

- DONIBANE GARAZI  
Charles de Gaulle plaza  
+33(0)5 59 37 03 57

## PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitetz Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

## ZEDARRIZTATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEXKA	GRP PAYS TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEXKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	└	└	└	▲
Itzul eskuin	┘	┘	┘	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗